


24.194 pertsona hil ziren Euskal AEn 2022an, hau da, % 4,9 gehiago


COVID-19ak 1.721 heriotza eragin zituen 2022an, aurreko urtean baino % 2,3 gehiago

Eustaten datuen arabera, 24.194 pertsona hil ziren Euskal AEn 2022an, hau da, 2021ean baino % 4,9 gehiago. Kopuru hori 2019koa baino % 12,2 handiagoa da, pandemiaren aurreko urtea alegia, eta 2020koa baino txikiagoa, 53 heriotza gutxiagorekin. Lurraldeen arabera, 2022an, 3.170 heriotza izan dira Araban, hau da, azken urtean % 6,7 gehitu dira, eta hori da igoerarik nabarmenena; Bizkaian, 13.152 (+% 5,3) izan dira, eta, Gipuzkoan, 7.872 (+% 3,3).



2022an, alde nabarmenak egon dira hilabeteen artean, aurreko urtearekin alderatuta. Urtarriletik uztaile, heriotza-tasa % 10,2 igo zen 2021. urtearekin alderatuta, eta uztaile nabarmentzen da, hil horretan % 29,6ko igoera izan baitzen. Hala ere, abuztuan eta irailean heriotzak % 0,1 eta % 2,1 jaitsi ziren, hurrenez hurren. Urrian berriz ere gora egin zuen aurreko urtearen aldean (+% 3,8), baina azaroan eta abenduan berriz ere behera egin zuen nabarmen: -% 6,3 eta -% 5,6, hurrenez hurren.

Euskal Aeko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Hildakoen batez besteko adina 81,3 urte izan zen

2022ko heriotza guztiak kontuan hartuta, 12.330 emakume eta 11.864 gizon hil ziren. 2022an, hildakoen batez besteko adina 81,3 urte izan zen, eta, hamar urte lehenago, 2012an, 78,9 urte; hau da, 2,4 urteko igoera izan da azken hamarkadan.

2022an, gizonak batez beste 78,1 urterekin hil ziren, eta emakumeak 84,4 urterekin; 2012an, berriz, 75,4 eta 82,7 urte izan ziren batezbestekoak, hurrenez hurren. Horrenbestez, azken 10 urteetan, gizonen bizitza 2,7 urtez luzatu da batez beste, eta emakumeena 1,7 urtez.

Haurren hilkortasunari dagokionez, urtebetetik beherako 41 haur hil ziren Euskal AEn. Jaioberrien heriotza-tasari dagokionez (bizitzako lehenengo 28 egunak hartzen dira kontuan), 30 haur hil ziren: 11 haur lehenengo 24 orduetan, eta 12 haur lehenengo astean. Urtebetetik beherakoen artean, haurren heriotzak guztizkoaren % 60,9 izan ziren.

2022an, 100 urte edo gehiagoko 521 pertsona hil ziren (1922an edo lehenago jaioak), eta haietatik emakumeak % 87,3 izan ziren. Ehun urte edo gehiagoko 100 pertsona gehiago hil dira 2021ean baino.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adina. 2021-2022

	2022	2021	Gehikuntza (%)
Euskal AE	24.194	23.073	4,9
Bizileku-lurralde historikoak			
Araba/Álava	3.170	2.970	6,7
Bizkaia	13.152	12.486	5,3
Gipuzkoa	7.872	7.617	3,3
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)			
Barakaldo	1.211	1.183	2,4
Basauri	493	478	3,1
Bilbao	4.301	4.044	6,4
Donostia / San Sebastian	2.207	2.067	6,8
Gebxo	817	780	4,7
Irun	664	658	0,9
Portugalete	607	585	3,8
Santurtzi	542	533	1,7
Vitoria-Gasteiz	2.363	2.182	8,3
Sexua			
Gizon	11.864	11.565	2,6
Emakumea	12.330	11.508	7,1
Adina			
40 urtetik beherakoak	250	223	12,1
40 urtetik 59ra	1.547	1.556	-0,6
60 urtetik 79ra	6.769	6.448	5,0
80 urte edo gehiago	15.628	14.846	5,3

Data 2023ko Uztailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Heriotzen % 26,4 tumoreek eragin zuten

2022an izandako heriotzen % 26,4 (6.378 hildako) tumoreek eragin zuten; ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragindakoak datoz, % 23,8rekin (5.767 hildako), eta, hirugarrenik, buruko nahasmenduek eta portaeraren nahasmenduek eragindakoak, % 8,2rekin (1.988 hildako).

Heriotzen kausak desberdinak dira oraindik ere sexu batean eta bestean: gizonen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumeen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta bigarrena tumoreak. Gainera, nabarmendu behar da emakume gehiago hiltzen direla buruko nahasmenduen eta portaeraren nahasmenduen eraginez gizon baino, baina kontrakoa gertatzen da kanpoko kasuei dagokienez; izan ere, kausa horien eraginez gizon gehiago hiltzen dira emakume baino.

Halaber, adinaren arabera ere badira aldeak heriotza-kausetan. Urtebetetik beherakoan artean, jaiotza inguruko aldiaren sortutako gaixotasunek eta sortzetiko malformazioek eragin zuten heriotza gehien; 1-39 urtekoen artean, heriotza-kausa nagusiak kanpoko kausak izan ziren —besteak beste, istripuak eta suizidioak—; 40-79 urtekoen artean, tumoreak izan ziren lehenengo heriotza-kausa, eta, 80 urtetik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak.

Euskal AEko heriotzak, horren arrazoiaren, adin-taldeari jarraiki. 2022

	Guztira	1 urtetik beherakoak	1-19 urte	20-39 urte	40 urtetik 59ra	60 urtetik 79ra	80 urte edo gehiago
Guztira	24.194	41	35	174	1.547	6.769	15.628
I.Ciertas Gaixotasun infekzioso eta parasitario batzuk	353	1	1	3	27	99	222
II.Tumores Neoplasiak (tumoreak)	6.378	1	7	48	736	3.000	2.586
III.Enfermedades Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak eta immunitate-mekanismoari dagozkion trastorno batzuk	142	-	-	1	5	36	100
IV.Enfermedades Gaixotasun endokino, nutrizional eta metabolikoak	749	3	2	3	33	166	542
V.Trastornos Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	1.988	-	-	2	14	211	1.761
VI.Enfermedades Nerbio-sistemako gaixotasunak	1.577	2	3	14	51	397	1.110
IX.Enfermedades Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	5.767	3	1	17	287	1.274	4.185
X.Enfermedades Arnas sistemako gaixotasunak	1.553	-	2	1	37	360	1.153
XI.Enfermedades Txegoste-sistemako gaixotasunak	1.136	-	1	6	80	332	717
XII.Enfermedades Larrazaleko eta azalpeko ehuneko gaixotasunak	96	-	-	-	-	12	84
XIII.Enfermedades Sistema muskulo-eskeletikoaren eta ehun konektiboaren gaixotasunak	312	-	-	-	-	37	275
XIV.Sistema genito-urinarioko gaixotasunak	765	-	-	-	9	128	628
XV. Haurduntza, erditzea eta erdiberriroa	1	-	-	1	-	-	-
XVI.Jaiotze inguruko denboraldian sortutako egoera jakin batzuk	22	20	-	-	-	2	-
XVII.Sortzetiko malformazioak, deformazioak eta kromosoma-anormalitateak	71	9	6	1	23	24	8
XVIII.Sintomak, zeinuak eta emaitza kliniko eta laborategiko anormalak	767	2	1	10	25	64	665
XX.Hilkortasunaren kanpo-kausak	796	-	11	65	181	212	327
COVID-19 baieztatuta	1.713	0	-	2	39	413	1.259
COVID-19 probablea	8	-	-	-	-	2	6

Data 2023ko Uztailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

COVID-19aren birusak heriotzen % 7,1 eragin zuen

2022an, 1.721 heriotza gertatu ziren (guztizkoaren % 7,1), zeinen funtsezko kausa COVID-19a izan zen. Heriotza horiek 2 taldetan sailkatzen dira: batetik, analisi espezifikoaren bidez egiaztatutako COVID-19ak eragindako heriotzak (1.713 hildako), eta, bestetik, COVID-19ak eragindako kasu probableak; kasu horiek ez dira analisi bidez egiaztatu, baina COVID-19a da heriotzaren kausa nagusia parte medikoan (8 hildako). Kausa horrek eragindako heriotzak 2021ean gertatutakoak baino % 2,3 gehiago dira.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19rekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2022

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	24.194	1.721	1.713	8
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	3.170	227	225	2
Bizkaia	13.152	921	916	5
Gipuzkoa	7.872	573	572	1
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	1.211	75	75	0
Basauri	493	41	40	1
Bilbao	4.301	316	314	2
Donostia / San Sebastian	2.207	120	120	0
Getxo	817	67	66	1
Irun	664	62	62	0
Portugalete	607	43	43	0
Santurtzi	542	38	38	0
Vitoria-Gasteiz	2.363	174	172	2
Sexua				
Gizon	11.864	924	919	5
Emakumea	12.330	797	794	3
Adina				
40 urtetik beherakoak	250	2	2	0
40 urtetik 59ra	1.547	39	39	0
60 urtetik 79ra	6.769	415	413	2
80 urte edo gehiago	15.628	1.265	1.259	6

Data 2023ko Uztailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika


Lurraldeka, Bizkaian izan zen heriotza gehien kausa horren ondorioz (921); gero, Gipuzkoan (573), eta, azkenik, Araban (227). Heriotza horiek ehunekotan kontuan hartuta, COVID-19ak eragindako heriotzen ehunekoa guztizkoaren % 7 da Bizkaian, % 7,3 Gipuzkoan eta % 7,2 Araban. Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmentzen da, COVID-19ak eragindako 316 heriotzarekin (% 7,3); ondoren, Gasteiz dator, 174rekin (% 7,4), eta, azkenik, Donostia, 120rekin (% 5,4). Barakaldo eta Getxo ere nabarmentzen dira, kausa horren ondoriozko 75 (% 6,2) eta 67 heriotzarekin (% 8,2), hurrenez hurren.

COVID-19aren ondorioz gizon gehiago hil ziren emakume baino; 924 eta 797, hurrenez hurren. Adinaren arabera, 80 urtetik gorako pertsonenak dira COVID-19ak eragindako heriotzen % 73,5.

Hilabeteen arabera, urtarrilean gertatu zen COVID-19ak eragindako heriotza gehien (450), eta, ondoren, otsailean (259); gainera, uztailan gora egin zuen kausa horren ondoriozko heriotza kopuruak (245).

Gainera, beste 579 heriotza egon dira, zeinetan COVID-19a egiaztatutako heriotza-kausen artean egon zen, baina arrazoi nagusia izan gabe.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, COVID-19ren arabera, hileko



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurraldeetan

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen, jaiotza baino 10.558 heriotza gehiago izan baitziren. Lurraldeen arabera, saldo negatiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Bizkaian, 6.291 pertsona; Gipuzkoan, 3.364 eta, Araban, 903. 2021ean saldo begetatiboa ere negatiboa izan zen, jaiotza baino 8.816 heriotza gehiago izan baitziren.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62